



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

# ALKARTE ABEGITSUAK

ASTE SANTUA 2021

NERABEZARO AURREKO ALDIA - 12/14 URTE



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

# EGUEN SANTUA SENIDE MAITASUNA SUSTATU SARRERA



¿Zein itxura hartzen diozu horri?  
Zuretzat, zer esan nahi du?

**Sustatu** hitzak, “zerbaiten garapen edo gauzatzea bultzatu” esan nahi du.

Ostegun santua, **senide maitasunaren eguna** dela diogu, Jesusek, bere adiskideekin ospatu zuen azken afarian, anai-arreba bezala nola jokatu irakasten digulako. Elkar hobeto maitatzeko adore ematen digu.

Gaur, familia handi izatea zer den sentitzeko aukera bizitzea proposamena egin nahi dugu.

**Bibliako txatala:** “Ikasbide eman dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe, joka dezazuen” (Jn 13, 15).

**Egunaren adiera esaldi bakarrean:** “Maitasuna da, banatzen denean hazi egiten den gauza bakarra” (Antoine de Saint Exupery).

## JARDUNBIDEA: MUNDUKO MAHAIRIK HANDIENA

Jesusek pertsona guztiak deitzen ditu munduko mahairik handiengan eser daitezten. Hurbileko eta urruneko kontinente, herri, lekuetako pertsonak. Ez alai dauden pertsonak bakarrik. Maitasunaren mahaiaren inguruan triste, bakarrik daudenak, arazoren bat dutenak... ere sartzen dira.

*Bikoteka, paper, kartoi edo kartulinazko mahaitxo bat egingo dugu. Mahai luzea izango da, nahi dugun jende guztia sar dadin. Mahaia egin eta gero, azken afari horretan bildu nahiko genituzkeen pertsonen izenak (senideak, lagunak) ipiniko ditugu. Ondoren, Jesusek gonbidatuko lituzkeen pertsonak (bakarrik daudenak, familia urrun dutenak) gogoratuko ditugu. Izenik ez badakigu, marrazki edo sinboloren batekin irudikatuko ditugu.*



*irudian, mahaiaren eskulanaren adibide bat duzu*

Jesusen azken afaria izango denez, mahaia dotore apainduko dugu. Soiltasunez, baina xehetasunez beteta. Prestatu mahai-oihal txiki bat lagun bakoitzarentzat, eta bete mahaian parte hartzen duten lagun guztiak eroso eta familiar sentiaraziko dituzten ezaugarri eta jarrerez. Nahi adina xehetasun gehi dezakezue, mahai handi horren inguruan eseritako guztiek harrera suma dezaten.

**AMAITZEAN, JARRERA EROSOA HARTU ETA KANDELA  
DIZTUKO DUGU JAINKO AITA-AMA GURE ARTEAN  
DELA ADIERAZTEKO.**



## **OTOITZA**

Taldean, gure mahaikideak nortzuk diren batera jarriko dugu. Denok gaude? Norbait falta da?

*Mundu guztia mahai beraren inguruan bilduko dugu. (Begiraleak prest izango du mahaia eta bateratze-lana egingo dugu neska-mutikoen proposamenak mahai horren inguruan esertzeko. Begiraleak aurkeztutako mahai horren buru Nazaretoko Jesus izango da eta beste mahaiburua hutsik utziko dugu, denontzako lekua dagoela irudikatuz)*



**ZERBITZUAREN SUSTRAIA,  
HARRERAREN SUSTRAIA,  
MUNDUKO MAHAIRIK HANDIENAREN  
SORBURU ETA SUSTRAIA...,  
MAITASUNA DA.**

## **AZKENEAN, ELKARREKIN OTOITZ EGINGO DUGU:**

**ESKERRIK ASKO, JESUS,  
OSTEGUN SANTU HONENGATIK.  
EGUN HONETAN, DENOK MAHAIKIDE IZATEKO AUKERA  
EMATEN DUEN MAHAIA ATONTZEN BAITUZU BETI.  
ESKERRIK ASKO, JESUS,  
GU MAITATZEAGATIK, GU ZERBITZATZEAGATIK,  
BESTEAK MAITATZEN IRAKASTEAGATIK.  
ESKERRIK ASKO, JESUS, ZU ONDOAN IZATEAK  
POZEZ ETA ITXAROPENEZ BETETZEN NAU-ETA.  
ESKERRIK ASKO, JESUS,  
OGI ETA ARDO APUR BATEAN JANARI BIHURTZEN BAITZARA.  
ESKERRIK ASKO, JESUS, GAURKO EGUNEZ  
HISTORIAKO LEHEN EUKARISTIA GOGORATZEN DUGU-ETA.  
ETA ESKERRIK ASKO, JESUS,  
GAURKO OPARI HAU NAHI ADINA ALDIZ OSPA DEZAKEGU-ETA.**

# BARIKU SANTUA ERRIKUTASUNEZ BABESTU

## SARRERA



Zein itxura hartzen diozu horri? Zuretzat, zer esan nahi du?

**Babestu** hitzak “norbait arriskutik gorde” esan nahi du eta baita “norbait edo zerbait lagundu, mesede egin edo defendatu” ere.

Ostiral santuz, Jesusek heriotza-zigorra jasotzen du eta bere ondoan bizi izan ziren **lagun guztiek bertan behera uzten dute. Inork ez du babesten, inork ez dio inongo errukirik.**

Egoera zailen aurrean izan ditzakegun bi jarrerez jabearazten lagundu nahi dizuegu: PASIBO, ezer egin gabe gera gaitzke edo ERRUKIOR izan. Errukiak garamatza besteen alde jokatzera.

**Bibliako txatala:** Zure eskuetan jartzen dut bizia (30. Salmoa).

**Egunaren adiera esaldi bakarrean:** “Ez nabe mintzen gaiztoen ekintzek, jende onaren axolagabetasunak mintzen nau” (Martin Luther King).

## JARDUNBIDEA: LOTUTAKO ESKUEN PARABOLA.

Neska-mutilek oztopoz beteriko gymkana egin beharko dute eskuak lotuta dituztela. Oin bat beste pertsona baten oinarekin ere lotu diezaiekegu, bidea gehiago zailtzeko. Azalpenik eman gabe lotuko ditugu.

Lotuta daudela, **ESKUAK LOTUTA ZITUEN GIZONAREN PARABOLA** irakurriko dugu.

*Bazen behin gainerakoen antzeko zen gizona. Gizon arrunta. Ezaugarri positiboak eta negatiboak zituen. Ez zen desberdina.*

*Egun batean, behin eta berriz aritu zitzaizkion ate-joka. Atera zenean, bere adiskideak aurkitu zituen. Elkarrekin etorri ziren adiskide batzuk zituen aurrez aurre. Adiskideek eskuak lotu zizkioten, horixe zela egokiena esateaz batera, horrela, eskuak lotuta, ez baitzuen ezer txarrik egingo (ez zioten esan egoera horretan ezer onik ere ezingo zuela egin). Eta, inork aska ez zezan, atean jagolea utziz joan egin ziren. Hasieran, guztiz etsita eta ernegatuta, lokarriak hausten saiatu zen. Bere ahaleginak alferrekoak zirela konturatuta, apurka-apurka egoera berrira moldatzeko saiakera egin zuen.*

*Apurka-apurka, bere kasa moldatzen hasi zen, eskuak lotuta zituela bizirik irauteko. Hasieran, oinetakoak kentzea ere oso zail gertatzen zitzaion. Egun batean, zigarroa biltzeko eta pizteko gauza izan zen. Eta lehen eskuak aske zituela ere ahazten hasi zen.*

Urteen buruan, gizona ohitu egin zen eskuak lotuta izatera. Bitartean, jagoleak, egunero-egunero ematen zion eskuak aske zituzten pertsonak kanpoan egiten zituzten gauza txarren berri (baina ahaztu egiten zitzaizen egiten zituzten gauza onen berri ematea).

Urteak joan, urteak etorri, gizona ohitu egin zen eskuak lotuta izatera. Eta jagoleak behin eta berriz gogoratzen zionez, gau hartan bere etxera joan eta eskuak lotu zizkiotenetik, eskuak lotuta zituen gizonak ezer txarrik ezin zuenez egin (ez zion esaten ezer onik ere ezin zuela egin), hobe zela eskuak lotuta bizitzea pentsatzen hasi zen.

Gainera, erabat ohitu zen lokarriak izatera...  
Urte asko igaro zen...

Egun batean, adiskideak, jagolea ezustean harrapatu ta etxean sartu ziren, gizonaren eskuak lotzen zituzten lokarriak hautsiz. Aske zara, esan zioten.



Baina berandu iritsi ziren, gizonaren eskuek ez zuten inongo gaitasunik.



**IRAKURKETA AMAITU ONDOREN, ESKUAK ASKATUKO DIZKIEGU, EROSO JARRI ETA KANDELA PIZTUKO DUGU JAINKO AITAMA GURE ARTEAN DELA IRUDIKATZEKO.**

## OTOITZA



BINA POST-IT EMANGO DIEGU  
ETA BI ZUTABE (PASIBOAK,  
ERRUKIORRAK) DITUEN  
KARTULINA JARRIKO DUGU  
HORMAN. POST-IT BATEAN,  
ESKUAK LOTUTA GENTUENEAN  
NOLA SENTITU GAREN  
IDATZIKO DUGU ETA 'PASIBOA'  
ITSATSIKO DUEN ZUTABEAN  
ESKUAK ASKE DITUGUNEAN,  
EGIN DITZAKEGUN HIRU GAUZA  
IDATZIKO DITUGU.

**DENOK BATERA ERREZATUKO DUGU:**

**BELDUR BANAIZ...  
GAIXORIK BANAGO...  
NORBAITEK ENTZUTEA BEHAR BADUT...  
ERRATZEN BANAIZ...  
BAKARRIK BANAGO...  
BIDEAREN BILA BANABIL...  
EREDUA BEHAR BADUT...  
BETI ZUREKIN... .. HOR ZAUDE, JESUS.  
GAUR, JESUS,  
ZEURETZAT BAKARRIK EGON NAHI DUT,  
ZURE BIZITZAKO EGUNIK GOGORRENEAN  
LAGUN EGINEZ.**



# LARUNBAT GUREN BASAMORTUA ONARTU

## SARRERA

Zein itxura hartzen diozu horri?  
Zuretzat, zer esan nahi du?



**Hartu**, ontzat hartu hitzak “norbaitentzat babes edo aterpe izan”, “onetsi, onartu, baietsi”, “pertsona edo gertaeren agerpena aparteko sentimendu edo adierazpenaz jaso”, esan nahi du.

Larunbat santuz, **Jesusen falta, Jesusen gabezia sentitzen dugu**; hutsik dagoz bera egoten zen lekuak. Senide edo adiskide maitearen heriotza nekez ulertzen eta onartzen dugu, baina bizilagun ditugunak gehiago estimatzera garamatza.

Gaur, bizitzeko behar dugunaren inguruan hausnartuko dugu.

**Bibliako txatala:** Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak (Has 1, 31).

**Egunaren adiera esaldi bakarrean:** Pertsonaren handitasunaz jabetzeko ez dugu daukana neurtuko, ematen duena baizik.

## JARDUNBIDEA

LOKALA BASAMORTU BIHURTUKO DUGU ETA JENDEA HAN BIZI DEN BEZALA BIZIKO GARA ORDU ERDIZ. HORRETARAKO, NESKAMUTIKOAK BI TALDETAN BANATUKO DITUGU ETA ROLL PLAYING DELAKOAREN ANTZEKOA EGINGO DUGU. BATZUK BASAMORTUAN DABILTZAN BISITARIAK IZANGO DIRA, BESTEAK, BASAMORTUKO TRIBU BATEKO KIDEAK. TALDEKIDEEN ERDIAK “BASAMORTUAREN” GOGORTASUNA JASATEN DUEN BITARTEAN, BESTE ERDIAK BASAMORTUKO TRIBUEK BEREN BISITARIEI ESKAINTZEN DIETEN ABEGIAZ IBILTARIAK HARTZEKO INGURUA PRESTATUKO DU.



**Bisitariak:** basamortuko klima oso gogorra da. Egunez egundoko beroa egiten du eta gauetz hotza. Gainera, lurzorua, lehorra da, eguzkiak gogor astintzen du eta apenas dagoen itzalik. Talde honek deserosotasuna, egarria eta jaimara heldu aurretik ordu luzez basamortuan ibili izanaren nekea jasango ditu.

Basamortuan jasan ditzaketen oztopo eta deserosotasunak:

- Ezin diote ibiltzeari utzi
- Oinetakoak oinez aldatu (eskuinekoa ezkerrekoan)
- Zama eraman dezatela
- Egarrria jasan: uraren soinua jarri eta fruitu lehorrak banatuko dizkiegu (kontuz covid-19a dela-eta) edo ura edan eta zein gozo dagoen esan...
- Leihoak ireki hotza sar dadin
- Soinu deseroso eta errepikakorrek jarri
- ...

**Tribua osatzen dutenak:** Basamortuan bizi direnek ez dute gauza asko izaten, baina daukatena asko baloratzen dute eta daukaten apurra banatu egiten dute. Talde honek jaima handia eraiki beharko du eta dena prestatu, leku xume baina abegitsua izan dadin, nekatuta eta deseroso iritsiko diren ibiltariei harrera egiteko... Eta beren onena eskaini beharko dute bisitariak heltzen direnean.

**BISITARIEK BASAMORTUKO DESEROSOTASUNAK JASANGO DITUZTE ETA TRIBUAK HAIK HARTZEKO LEKUA ATONDUKO DU. HAMABOST MINUTUREN BURUAN, TRIBUAK HARRERA EGINGO DIE BISITARIEI.**

**KANDELA PIZTUKO DUGU JAINKO AITA-AMA GURE ARTEAN DELA IRUDIKATZEKO. TALDEKIDEEK NOLA SENTITU DIREN ADIERAZIKO DUTE BANAN-BANAN.**



**OTOITZA**



**DENOK BATERA:**

**BASAMORTUA, TOPAGUNEA DA,  
NIRE ZALANTZAK ARGITZEKO LEKUA.  
BAKARRIK SENTITZEN NAIZENEAN,  
JESUS, ZEU IZANGO ZAITUT EUSKARRI.  
ISILTASUNAK ESTUTZEN NAUENEAN,  
JESUS, ZEU IZANGO ZAITUT HITZ.  
BELDURTZEN NAIZENEAN,  
JESUS, ZEU IZANGO ZAITUT  
GORDELEKU.  
AMEN**

# PAZKO DOMEKA POZTASUNEZ KIDE EGIN

## SARRERA

Zein itxura hartzen diozu horri?  
Zuretzat, zer esan nahi du ?



**Kide egin** hitzak “zerbait edo norbait oro baten zati bihurtzea da”.

Pazko-igandez, Jesus heriotzatik bizira igaro dela ospatzen dugu (“**Pazko**” hitzak “**igarotze**” adierazten du). Jesus berpiztu eta adiskideei agertzen zaienean, ez die aurpegiatzen Bera bertan behera utzi izana, alderantziz baizik, aurretik baino talde batuagoa egiten du beraiekin.

Gaur, Jesusen antzera, poztu zaitez denok lekua dugun taldeko kide zarelako.

**Bibliako txatala:** Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko (Lk 24, 29-30).

**Egunaren adiera esaldi bakarrean:** Bakarka gutxi egin dezakegu, elkarrekin asko egin dezakegu (Helen Keller).

**Adiskidetasuna da bizitzaren errezetako osagairik garrantzitsuen.**

## JARDUNBIDEA: MEZUA ERANTSI ADISKIDEEN TALDEARI.

Gaur, poz eta itxaropenez betetako mezua emango diogu taldeari. Horretarako, folio zuri bana emango diegu eta argizarizko pintura zuriaz mezua idatziko dute.



*Irudi honetan eskulanaren adibide bat duzu*



**MEZU GUZTIAK IDATZI ONDOREN, KOLORETAKO  
AKUARELEKIN MARGOTUKO DITUGU, MEZUA ARGITARA  
EMATEKO. GARRANTZITSUA DA HAINBAT KOLORE  
BILTZEA, MEZUA HOBETO IKUS DADIN. ZENBAT ETA  
KOLORE ETA MOLDE ETA BIZI GEHIAGO JARRI ORDUAN  
ETA DISTIRATSUAGOA IZANGO DA MEZUA.**

## **OTOITZA**



**KANDELA PIZTUKO DUGU JAINKO AITA-AMA  
GURE ARTEAN DELA IRUDIKATZEKO ETA  
TALDEKIDE BAKOITZAK NOLA SENTITU DEN  
ADIERAZIKO DU.**



## **DENOK BATERA:**

**BIZTU DA JESUS, KRISTO BIZI DA!  
BERAK UKITZEN DUEN GUZTIA BIZIZ BETETZEN DA.  
ZUREGAN DAGO, NIREGAN DAGO,  
PERTSONA BAKOITZARENGAN DAGO BETIRAKO.  
BIZIAREN JAINKOAK GURE BIHOTZAK IREKI DITZALA  
BABESGABEEN, BEHARTSUEN, BAZTERTUEN BEHARRETARA.  
IREKI DIEZAIELA GURE BIHOTZA BABES ETA LAGUNTZAREN  
BILA DIHARDUTENEI.  
ERREINUA ERAIKITZEN LAGUN DIEZAGULA.**

## **PAZKO ZORIONTSUA!**

